

uztarria

Azpeitiko herri aldizkaria

Joseba Lazkano, azpeitiar jesuita Venezuelan

«GAUZAK LORTZEAK EMATEN DU POZA»

Venezuelako behartsuen aldeko
proiektu batean dabil orain

udala

Azpeitia herri
«garrantzitsua»
izan daiteke
Udalbiltzan

kultura

Kulturari
buruzko
mahainguru zabala
eta interesgarria



mendia

Gipuzkoako
Itzuliko azken
etapa hilaren
21ean



Kirolak

Guztia kirolerako

Jose Artetxe, 1

Urrut.: 943 81 16 50 - Azpeitia

Ruper Ordorika Azpeitian

Eguna: Azaroak 5 (ostirala).

Ordua: 22:30ak.

Tokia: Zelaitxo zine aretoa.

Sarrerak: 1.300 pezeta. (Aurretik hartuz gero, 1.100 pezeta.

Horretarako epea: azaroak 5eko 15:00ak. Sarrerak Mendoza, Pastorkua, Urtzi, Zuhatz eta Orkatz tabernetan salgai)



Antolatzailea:



uztarria

kultur koordinadora

Laguntzailea: Azpeitiko Udala



"Zakurrak ez badio hezurrari ematen, arkakusoez zakurra jaten dute"

nm

ale honetan...

4-5-6: Alaitz Olaizola, Joxe Luis Aizpuru eta Iban Arregiren iritziak, Salegiren marrazkia...

8-10: Erreportaia. Zer aporta dakioke Azpeitiko Udalak Udalbiltza sortu berriari?

14: Hilaren 7an jokatu da Mendiko IV. Rallya, Lagun Onak M.B. eta Argazki Elkartek antolatua

15: Inkesta: zer iruditzen zaizu Gau Txoriren itxiera?

16-19: Elkarrizketa. Joseba Lazkano jesuita: «Gauzak lortzeak ematen du poza»



22-24: Mahaingurua. Maria Jesus Aranburu, Laxaro Azkune eta Joxe Luis Aizpuru kulturaz mintzo

25: Gipuzkoako Itzuliaren 7. eta azken etapa hilaren 21ean, Lagun Onak M.B.k antolatuta

26: Zerbitzuak. Erakunde publikoetako telefonoak, autobusen ordutegiak, gaueko farmaziak...

28-29: Azaroko agenda. XVII. Euskal Antzerki Topaketak, hileko ekitaldirik nagusia



30: Elkarrizketa. Abel Segurola artzaina: «Gogorra dek artzai izete hau, baño gustoa natxiok»

Ale honetako laguntzaile berezia



aKui1ua

Jaso buruak eta: enbido!



Fernando Morillo
Idazlea

Guztia alda dezagun, guztiak berean iraun dezan. Hori esan zuen behin norbaitek, eta ezin uka logika apurra bazue-nik. Oso harira dator horixe. Begiak pixka bat zabalduz gero, edonor ohar baitaiteke aldaketa garaietan buru-belarri murgildurik gaudela. Eta jolasteko ordua iritsi dela. Egin zuen apustuak, jaun-andreok, jokoa hastera doa eta!

Aldaketak, arriskutsuak ere badi-ra, noski. Txinatarrentzat, adibidez, madarikazio latza da horrela-ko aro batean bizitzea. Eta txinatar-rrak ez dira batere inozoak gero. Hala eta guztiz ere, hori dena baino askoz garbiagoa, zera da: mututzen ez dena, hilik dagoela. Kitto. Hor ez dago besterik. Ez ez dugu, besteak beste, Azpeitia hil dadin nahi, ezta? Orain arte egin –ahal izan?– ez dugun dena erai-kitzeko uneak datoz. Gogorak. Baina halabeharrezkoak, aizue. Aldizkari berri bat! Hau hasi da mugitzen, hara. Erronka berriak egiteko –eta onartzeko!– garaia da, azpeitiarrok. Zer demontre, jaso ditzagun buruak: ENBIDO!

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora

Egoitza: (Oraingoz) Urbitarte 2, 1-A; Telefonoa: 15 10 89

Posta kutxa: 227, Azpeitia

Publizitatea: Tel: 81 29 56, 85 28 59

Posta elektronikoa:

Uztarria@hotmail.com

Inprimategia: Zubi Grafikak

Tirada: (Hilabete honetan) 5.500 ale

Lege gordailua: (Jasotzeke)

UZTARRIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

a**mu**ko Zubi**ti**k

Erran zaharretan, gezur guti!

Abuztuan zehar, 14.000 atsotitz irakurtzeko beharra sortu zitzaidan. Hasieran gogoz ekin nion irakurketari; gero, gogoz baino gehiago beharrez eta hala ere atsotitz bakoitzaren magiaz gozatuz.

Teknologia nagusitzen ari den gaur egungo gizartean, iraganeko esentziaren bila abiatzeko gogoia piztu zitzaidan bapatean eta Gotzon Garateren atsotitz bildu-

mak horretarako aukera aproposa eskaini zidan.

Atsotiz anitz, garai ezberdinen islada zuzena direla, jakin bagenekien. Pentsatzen nuen ere bai, garaiak aldatuak zirela, hala ote? Dagoeneko, ni ez nago horretaz hain seguru.

Zertarako baina euskal altxor preziatua, liburu bateko orrien artean itsatsia baino geratuko ez bada?

Aske denaren eskubidei atxikiz, arbasoen jakituria elkarbanatzen zilegi badela iruditu zait

eta horretarako aukera aproposa eskaini didatela aprobetxatuz, azkenean herrian herri aldizkari bat izanen dugula ezin sinetsita, euskal atsotitz ezagun eta ezezagunagoak eguneroko bizipenetan eta iritzietan uztartuak berreskuratuko ditugu.

«Erran zaharretan, gezur guti!!».

Bota begirada bat inguru hurbilari, eta ausartu gero gezur handiak esaten ote ditudan esatera. Bueno, nik akaso bai, erran zaharrek ez.

Alaitz Olaizola
Antzerkilaria



Gutunak

Aukera bat

Azpeitiarroi, azkenean, herri aldizkari honen bitartez etorri zaigu geure kezka, pasadizu kexa, esker on eta abar zuzenean herriaren aurrean azaltzeko aukera.

Oso aukera ona delakoan nago, eta denoi gonbitea luzatzen dizuet bertan parte hartzeko.

Eta helburu hori bete nahian, dagokionari, alde batetik, proposamen batekin hasiko naiz: Olatzko Amaren Plazan erdi-erdian dagoen lore-ontzi-eserleku borobil horretan (lorak zenbat irauten duten ikusiz), ez al litzateke hobe izango zuhaitz txiki-

ren bat edo batzuk landatzea? Bai itxura aldetik, baita diru aldetik ere askoz aberasgarriagoa izango dela deritzot.

Beste aldetik, eskatera bat: auzo honetan bizi garenok eskertuko genuke gure auzoko argiak beste auzoetakoekin batera piztea, atsekabea ematen baitu herri osoa argiak piztuta dagoela gure auzoa ilun-iluna ikusteak.

Iosu Badiola Uzin

'Tragaperras' delakoak direla-eta

Orain dela gutxi izan da arazo larri bat herriko famili batean, famili hartako batek tra-

datuak

Gipuzkoako Diputazioak hemen-dik urte batzuk barru hamahiru depuradora martxan izateko helburua du, baina gaur egun hiru baino ez daude funtzionamenduan. Azpeitikoa da haietako bat; Debakoa eta Zarazkoa dira beste biak.
(DV, 1999-10-08)

tzen duena egunero. Tabernek dirua irabaziko dute makina haiekin, baina maiz arrazoi moralei lehen-tasuna eman behar zaie. Adibidez, horrelako makinak ez jarritz.

J. Larrañaga

Arrixkue Exkerreteiko bidien

Oin, Gau Txoriye itxite daola-ta, jendie zapatu gauetan Exkerreteire jutea, eta uste det baten batek earra hartu ber dule, bide txiki hartan batzuk oñez jute din bitartien beste batzuk abiyadan jute dilako kotxien. Beti bezela, zeozer gertau ta geo eingo da near.

M. Etxaniz

UZTARRIAREN OHARRA: gutunek oso motzak izan behar dute, bestela Uztarriak mozteko ahalmena izango du. Kartak bidali hona: Uztarria, 227 posta kutxa, Azpeitia. Edo, Uztarria, Urbitarte 2, 1-A. Edo, posta elektroniko honetara: Uztarria@hotmail.com



Ederki ikasi dut azken hilabeteetan miborra desgertzeaz dagoela, eta bere ordeaz euroborra datorkigula gizen eta indartsu. Ez omen da izango bien artean diferentzia nabarmenik, baina Europako konbergentziaren kontuak omen dira... Diferentzia-ia 0.70etik gorakoa bada, kontuz! Iruzurra hor nonbait! Interes hipotekarioak 3,5 gainditzen badu, beste banku edo kutxaren batera joan behar omen da negoziatzera. Hasierako komisiorik ez

omen da ordaindu behar, eta korretajearekin adi! Etxe bat erosteko asmotan dabilen nehork jakin beharreko *aitagureak* dira. Lezioa ikasi ostean abiatu naiz gaur egungo *fede-elizetara*. *Gestión-Gestioa* izeneko gela elegantea da nire helmuga. Bekatuak aitortu dizkiot *apaiz-gestoreari*, eta *damu det jauna* abestu ostean haren bedeinkapenaren zain geratu naiz. Bekatuak handiak izango-edo, eta 30 urteko *agur-mariak* esateko eskatu dit, eta

Konfesaleku berriak

hilero 50 *aintza-aitari*. Nire bekatuak beste inon baino errazago barkatuko dizkidatelakotan, gustura atera naiz. Orain penitentziari ekin behar diot. *Diario Vasco*-ko *Ventas* darabilkit Biblia gisa eta agentzia inmobiliarioak dira nire apostuluak. Toki guztietan daude: jatorrak dira batzuk eta berritsuak gehienak. Hala ere, mesfidati eta errezeloz begiratzen diet. Hasi da nire 40 eguneko baraualdia.



Joxe Luis Aizpuru
Kazetaria

otSO belZa

Joseba Salegi



gaia emanda

UZTARRIA herri aldizkariaren sorrera

Asko kostata baina lortu da emaitza izugarria biak batera uztartu dira kultura eta herria. Hauxe da gure artera heldu den aldizkari berria; herria eta kultura biak lotzen ditun uztarrria.

Aldizkari hau dela ta denok pozez beterikan gaude talde bikain bat egin delako talde guztien zutabe. Herritar denok saia gaitezen gogor UZTARRIAN alde; beti aurrera segi dezagun uztarririk hautsi gabe.

Beñat Lizaso
Bertso Eskolako kidea

Kalean da azpeitiar guztion aldizkaria

Oraindik buruan dut Uztarrria martxan jarri genuen eguna. Iaz zen. Azpeitiko kulturarekiko eta euskararekiko kezka genuen hainbat lagun bildu, gogoeta egin, proposamen ezberdinak aztertu... Handik aurrera egin beharreko bidea argi genuen. Eta argi dugu. Kultura aldetik gabeziak somatzen genituen orduan, eta somatzen jarraitzen dugu orain ere. Hala, behar handienak detektatu eta behar haiei eman beharreko konponbideak aztertzeari ekin genion. Kultur Etxea, Euskara eta Herri Aldizkaria; horra hor letra larriez seinالاتu genituen beharrak.

Egin duguna...

Beharrak konponbidea eskatzen du, eta, hala, udalak Euskara Patronatoa sortu du aurten, eta euskara teknikari figura sortu ere bai. Orain Uztarrria Kultur Koordinadorak UZTARRIA herri aldizkaria sortu du. Egin dugu aldizkaria, «herri» horrek esan nahi duen guztiarekin: zabala, herriar guztiena, herritarrok sortua... Hainbat adjetibo gehitu dakizkioke. Helburu haiek genituen buruan proiektuaren sortzeari ekin genion. Eta horretan jarraituko dugu, orain aldizkaria kalean dagoela. Irizpide haiei ez diegu bizkarrik emango.

Horretarako osatu dugu sentsibilitate desberdinak biltzen dituen proiektua. Eta horregatik egon gara harremanetan herriko elkarte gehientsuenekin. Horregatik lortutako atxikimendu zerrenda zabala, edo herriko hiru alderdi politikoekin egindako bilerak.

Hala ere, ez dezagun pentsa egin duguna izugarria denik. Garrantzitsua da, bai, herri aldizkari bat izatea. Baina ez da hain harritzekoa ere. Euskal Herrian hainbat herri aldizkari daude; batez ere Gipuzkoan. Azpeitia bezalako herri euskaldun batean orain arte herri aldizkaririk ez edukitzea, horixe bai zela harritzekoa.

Eta horren erantzukizuna guztionganaino heltzen da. Udaletik hasi eta Uztarrriaosatzen dugunonganaino. Hala zioten 1998ko azaroran Uztarrriak herrian banatutako inkestek. Alegia, udalak ez ezik, herritarrok ere erruaren parte handia geurekin daramagula, herri aldizkaririk egiteko ezer ez dugulako egin. Orain arte.

...eta egiteko duguna

Aldizkaria atera dugu, bai. Baina oraindik badugu egitekorik. Izan ere, aldizkaria ateratzea da gauza bat; eta behin atera eta gero, gauzak ondo egitea, bestea. Hasiera batean —aurreneko urtean edo—, aldizkaria hilabetero kaleratuko

ZABALA

Horretarako osatu dugu sentsibilitate desberdinak biltzen dituen proiektua; horregatik egon gara herriko elkarte gehienekin

HARPIDETZA

Hasieran herritar guztiei banatuko zaie; gero harpidedunei eta bazkideei. Harpidedun izateko ez da sosik ordaindu beharko

BAZKIDEA

Proiektua diruz lagundu daiteke bazkide eginez, horrek dituen abantaila guztiekin, urtean 3.000 pezetaren truke

dugu, aurrera begirako asmoa hamabostekaria ateratzea bada ere. Herri-tarrekiko gertutasuna lortzeko, gaien tratamendua ez ezik, maiztasuna ere garrantzitsua delako: zenbat eta sarriago iritsi etxetara, orduan eta hobeto.

Gainera, herri aldizkaria Azpeitiko buzoi guztietara banatuko da hasierako hiru hilabeteetan. Ondoren, soilik harpidedunei eta bazkideei banatuko zaie. Harpidedun izateko ez da sosik ordaindu beharko. Izena eta helbidea eman eta kitto, Azpeitiko berriak zuzen-zuzen helduko zaizkizu etxera.

«Eta nola finantziatuko dute ba aldizkaria?», galdetuko du norbaitek. Horretan laguntza txiki bat emateko moduan zara zu zeu, irakurle. UZTARRIAREN bazkide egin zaitezke, horrek eskaintzen dituen abantaila guztiekin (elkar-atea erregistratua dago). Adibidez, urtean 3.000 pe-zeta ordainduta, etxera helduko zaizu aldizkaria.

Azpeitiari eta azpeitiarrei zerbitzu bat eskaintzera gatoz, zerbitzu komunikati-bo zabal eta serio bat. Hau sortzeko erabili dugun urtebete luzean beharrezkoa izan da herritarren partaidetza eta aportazioa. Eta gero ere beharrezkoa izango da, aldizkariak «herri aldizkari» izaten jarraituko badu; aldizkariak herritar guztiena izaten jarraituko badu.

Iban Arregi

UZTARRIA Herri
Aldizkariako lehendakaria

euskalduna
euskaltzalea
irakurterraza
ikusgarria
herrikoa
herritarra
zabala
autonomoa

...



uztarria

Azpeltiko herri aldizkaria

**egin zaitez harpidedun
...doan!**

Bidali hona zeure datuak: 227 POSTA KUTXA, AZPEITIA

Izena eta bi abizen:

Helbidea:

Telefono zenbakia:

Oharrak 11. orrialdean

Zertan aporta dezake gure udalak Udalbiltzan?

Alkateak, EHk eta EAk diote garrantzitsua izan daitekeela

► Udalbiltza sortu da, baina zer egin dezake udal ordezkariak sortutako erakunde horrek? ► Lehendabizi azterketa orokorra egingo du
► Azpeitiko alkateak, EHk eta EAk diote gurea udal garrantzitsua izan daitekeela

Enekoitz Esnaola

Euskal Herri mailako lehen erakundea sortu da». Horixe zioten joan den irailaren 18an Bilbon, Euskalduna Jauregian, Udalbiltzaren sorreran egon ziren guztiek. Eta hala da, Euskal Herriko sei lurraldeak kontuan hartutako erakundea baita Udalbiltza. Sei lurraldeetako udaletako zinegotziak eta alkateak daude —ez



Jose Mari Bastida (erdian), Udalbiltza sortu zen egunean.

EGUNKARIA

Jose Mari Bastida
Azpeitiko alkatea (EAJ)

«Asko aporta dezakegu, edozeinek baino gehiago»

► Erakunde garrantzitsua iruditzen al zaizu Udalbiltza?

Oso garrantzitsua. Lehen-go aldiz alderdi abertzaleok elkartu egin garelako, eta nik horri garrantzia handia ematen diot.

► Zer-nolako inpresioarekin aterata zinen Euskalduna Jauregitik Udalbiltzaren sorreran?

Onarekin, baina Iruñeko

lehen biltzar hark inpresio handiagoa egin zidan, neuk parte hartu nuelako hura antolatzen, orduan mahaian egon nintzelako... Hala ere, Euskaldunakoa izugarria izan zen.

► Zer paper joka dezakete udalek?

Handia, Euskal Herrian udalek indar handia eduki izan dutelako, gauza asko egin direlako udalen ingu-

ruan, eta, alde horretatik, hau beste ekintza bat da.

► Eta Azpeitiko Udalak zertan aporta dezake?

Nik uste aportazio handia egin dezakegula guk. Orain zaila da esatea zertan, Udalbiltza azterketa orokorra egiten ari delako. Baina gure udal honek beste edozeinek baino aportazio handiagoa egin dezake, Azpeitiko Udale-

«**Garrantzia du lehenengo aldiz abertzaleok elkartzek**»

Zuzen-zuzenean hartu du parte Bastida alkateak Udalbiltzan, eta oso gustura da abertzaleak elkartu direlako.

an ordezkari guztiok abertzaleak baikara.

► Herritarrengandik erakunde gertukoena udala izateak zeresanik izan al dezake?

Dudarik gabe, nik beti esan izan dudalako udaletxea dela jendea errazen hurbiltzen den erakundea, txarrerako zein onerako. Geu ere saiatuko gara azpeitiarrei Udalbiltzari buruzko informazioa zabaltzen.

guztia. Bilbon irailaren 18 hartan 1.776 hautetsi eta auzapezek eman zioten babesa erakunde horri. Aurretik, otsailaren 6an, Iruñean 660 bat kide bildu ziren, udal ordezkarien lehen bileran.

«Iparra eta Hegoa gertuago daude orain», «guztiei irekia», «proiektu nazionala gorpuztu behar da» eta antzeko esaldiak entzun ziren Udalbiltzaren sorreran Bilbon. Han izan ziren Azpeitiko Udaleko ordezkariak ere, eta giro onaren seinale da batera joan zirela EAJ, EH eta EAKoak. Jose Mari Bastida alkateak aurreko Batzorde Iraunkorrean parte hartu zuen, eta Iruñeko Biltzarrean, adibidez, mahai nagusian egon zen. Orain ez dago zuzendaritza berrian. «Izan ere, gure alderdiak erabaki du jende berri bat sartzea, eta ni lehengoan egon nintzenez, ba orain beste batek hartu dit niri lekuko», esan digu Bastidak.

UZTARRIA Herri Aldizkariak alkatearekin berarekin (EAJ), Miren Odriozola (EH) eta Javier Beobiderekin (EA) hitz egin du Udalbiltzari buruz, ea, erakunde hori hain «garrantzitsua» izanik, Azpeitiko Udalak zertan aporta dezakeen galdetuz. «Lehendabizi, Udalbiltzatik bidalitako mozioa onartuz», dio Miren Odriozolak. Hain zuzen, Udalbiltzak Euskal Herri guztiko udal denei bidali die mozioa, bakoitzak udal gisa atxikimendua adierazteko.

Miren
Odriozola
EHko bozeramailea

«Ondo legoke Azpeitiak bere diagnostikoa egitea»

► **EHko zinegotziok ere Udalbiltzaren alde zaudete. Zergatik iruditzen zaizue erakunde garrantzitsua?**

Euskal Herri mailako lehen erakundea delako, eta Euskal Herriaren gorpuztea bideratzeko sortu delako.

► **Eta zuk diozun gorpuzte horretan zertan lagundu dezake Azpeitiak?**

Lehendabizi esku artean dugun mozioa onartu behar du udal gisa. Baina hau ez da alderdi politiko kontua soilik, herritarrek eta taldeek ere parte hartu behar dutelako.

► **Nola irits daiteke, ordea, Udalbiltzaren kontua herritarrengana?**

Udalak garrantzia handia emanez informazioari eta komunikazioari. Udalbiltzari buruzko idatziak-eta etxeetara bidal ditza-ke, hemen dugu herri aldizkari hau, hor dago Kaito Telebista, hor Loiola Herri Irratia... Eta horretaz guztiaz gain, jendearekin zuzenean egon behar du.

► **Azpeitia oso herri garrantzitsua izan al daiteke Udalbiltzan?**

Horixe baietz! Kontuan hartu behar da ia hamalau mila biztanleko herria izanik ordezkari politiko de-

«**Hau ez da politikoon kontua soilik**»



Udalbiltza, Euskal Herri mailako lehen erakunde nazionala dela dio **Miren Odriozolak**, eta Azpeitiak jarrera pasibo batean ez lukeela egon behar.

nok abertzaleak gara, eta herritarren %87k euskaraz badiakiela.

► **Zer ekimen ditu buruan EHk?**

Udalbiltzak Euskal Herri mailako diagnostikoa egin behar duen bezala, ondo egongo litzateke Azpeitiko Udalak Azpeitiko diagnostiko zabala egitea. Udalbiltzari lana errazteaz gain, geu nola gauden jakiteko balioko luke.

Udalbiltzaren mozioa

Udalen atxikimendu bila azaroan

Udalbiltzak honako mozioa aurkeztu du Euskal Herriko udal guztietan, eta haien atxikimendua nahi du lortu hil honetan bertan.

UDAL hautetsiek eta udalek osatzen dugu

Udalbiltza. Udal hautetsiek eta udalek babestu, indartu eta garatu behar dugu Udalbiltza, gure erakunde nazionala.

Udalbiltza bezalako erakundeak behar ditu Euskal Herriaren eraikuntza demokratikoak, auzolanean,

borondatez eta denen partehartzez osatua eta egituratua, inongo inposaketa eta zatiketarik gabe.

Euskal Herriko udalen arteko harremanak sakontzeko, senidekidetzan lan egiteko eta Euskal Herri osoaren alde aritzeko sortu da Udalbiltza. Hau kontuan izanik, udal taldeek udalbatzarrari erabakiok hartzea proposatzen diote.

1. Udalbiltzaren helburuak, egitasmoak eta izatea bere egiten du Udalak.

2. Bertako kide izateko borondatea adierazten dugu, bidebatez.

3. Udal erabaki honen berri Udalbiltzari emango zaio.

4. Komunikabideen bitartekoz udalak herritarrei jakinaraziko die udalbatzak hartutako erabakia.

Dena den, Bastidak dioenez, «zaila» da une hauetan jakitea zertan lagundu dezakeen Azpeitiak, «Udalbiltzak oraindik ez duelako ezer zehatzik».

Bost lan talde

Baina horretan ari da erakunde hori. Euskal Herriko azterketa orokorra hasi da egiten. Eta horretarako bost talde sortu dira Batzorde Iraunkorrean: 1. Euskara; 2. Kultura, Kirola eta Komunikazioa; 3. Lurraldearen antolaketa; 4. Hezkuntza eta Irakaskuntza; 5. Garapen ekonomikoa eta soziala.

Udalbiltzak euskara izango du lan, zerbitzu eta komunikazio guztietarako hizkuntza.




Udalbiltzako Batzorde Iraunkorra, Bilbon, Euskalduna Jauregian.

EGUNKARIA

Javier Beobide
EAko bozeramailea

«Azpeitiak zeresanik edukiko du Udalbiltzako zenbait arlotan»



Javier Beobidek uste du bakea lortzeko eta eraikuntza nazionalerako erakunde garrantzitsua dela Udalbiltza.

Euskal Herriko hainbat hautetsi, alkate eta jendek Udalbiltzan konfiantza dutela jabetu ginen orduan. ■

► Zergatik iruditzen zaizu garrantzitsua Udalbiltzaren sorrera?

Euskal Herriak gaur egun bizi duen egoerarekin bat dator. Bakea lortzea da EAren helburu nagusia, eraikuntza nazionalaren aldeko apustua egin behar dugula ahaztu gabe. Hori dela eta, une aproposa iruditu zaigu Euskal Herri guztiko hautetsien biltzarra osatzeari. Horri esker, egun zatituta dauden lurraldeak gertuago izango dira, eta,

bide batez, bakea lortzeko urrats garrantzitsua dela uste dugu.

► Zertan lagundu dakioke Azpeitiak Udalbiltzari? Herri garrantzitsua bilaka al daiteke?

Euskal Herriko udalerri guztiek zeresan handia dute. Eta, dudarik gabe, Azpeitiak garrantzia han-

«Bakea lortzeko urrats garrantzitsua da gure ustez»

dia izango du Udalbiltzan, udaleko 17 zinegotziak bertan daudelako.

► Zer gairi emango dio Azpeitiak Udalak garrantzirik gehien?

Gaur egun garrantzitsua da Euskal Herriaren diagnostiko zabala egitea, eta Azpeitiak zeresanik badu zenbait arlotan: euskara, kultura, kirola, lurralde antolamendua, garapen ekonomiko-soziala...

► Zerekin geratu zineten Udalbiltzaren sorrera egunean?

ARROSPIDE
OINETAKOAK

Loiolako Inazio Hiribidea, 1
Urrut.: 943 81 19 14
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

mabe
DEKORAZIOA

Teresa Mangas Beobide

LOIOLABIDE, 17 - Urrut.: 943 15 00 45 - AZPEITIA

Iturgintza, Gas eta Bero Zerbitzua
ARREGI

Loiolabide, 13 behea Urrut.: 943 81 47 63

Akordiotik gertu udalean

EAJ eta EA ados jartzear

► EAJ eta EA legegintzaldiko akordioa sinatzetik nahikoa gertu daude ► Aurreko legegintzaldian ere bien arteko hitzarmena izan zen ► Oraindik ez dago garbi zer jarrera hartuko duen EHk

Uztarrria

Ekainaren 13an izan ziren udal hauteskundeak, baina oraindik, erredakzio hau itxi den egunean (azaroak 2) Azpeitiko Udalean ez dago alderdien arteko akordiorik, eta, beraz, batzordeak egon arren, udala ez dago erabateko fun-

tzionamenduan. Baina baliteke aurki izatea akordio bat. Egunotan eman daiteke eza-gutzero albistea. Eta, hain zuzen, eta aurreko legegintzaldian bezala, Euzko Alderdi Jeltzalea irabazlearen (EAJ) eta Eusko Alkartasunaren (EA) artekoa. Hitzarmena, betiere, lau urtekoa izango litzateke.

Bestetik, Euskal Herritarrok-ek (EH) Uztarriari esan dioenez, Jose Mari Bastida alkatea prest legoke EHri batzorde bat edo bi emateko, baina alderdi horrek ez du oraindik erabakirik hartu.

Gaur egun EAJk zazpi zinegotzi ditu udaletxean, EHk sei eta EAK lau. ■



Azpeitiko udaletxea.

IÑAKI URANGA

...edo bazkide izan zaitezke urtean **3.000** pezeta soilik!

Oharrak: Bazkide izatea erabakitzen baduzu, bete aldameneko datu hauek eta ez zazpigarren orrialdeko harpidedun izateko datuak.

Laugarren hilabetetik aurrera harpidunek eta bazkideek soilik jasoko dute aldizkaria.

Bidali hona zeure datuak: 227 POSTA KUTXA, AZPEITIA

Izena eta bi abizen:

Helbidea:

Kontu korronteko zenbakia:.....


uztarrria
Azpeitiko herritarrok

...autonomoa, zabala, herritarra, herrikoa,
ikusgarria, irakurterraza,
euskalduna,
euskaltzalea

motxien

Azpeitia-Urraki sailkatua, Azpeitia-Oñatz ez

Gipuzkoako Herrien Arteko Txapelketan, Azpeitia-Urraki taldeak (Imanol Lazkano, Joxe Luis Gorrotxategi, Urko Egaña) aurrrera egin du, eta Azpeitia-Oñatzek (Anjel Larrañaga, Jokin Uranga, Joxe Agirre) ez. Hilaren 5ean dauka saioa Elgoibarren Azpeitia-Landetak (Xebastian Lizaso, Leire Ostolaza, Andoni Larrañaga), Toloxaren kontra. Sei talde sailkatuko dira guztira.


Merkatarientzat ikastaro teknikoak

Alde Zaharreko Dendarien Elkartek antolatuta Euroa, *Escaparatismo*, *Asociacionismo*, *Merchandising*, eta *I.R.P.F.* ikastaro teknikoak egingo dira hilaren 15etik abenduak 2a arte. Interesa dutenak telefono zenbaki honetara dei dezakete: 15 17 86. Bulegoako ordutegia goizeko hamarretatik eguerdiko ordubatak artekoa da.

Jubilatuen urteroko festa

Urteroko festa egin zuten jubilatuak urriaren erdi aldera. Aste osoa antolatu zuten, urriaren 17an bazkari batekin bukatzeko. Jose Mari Bereziartua eta Bittori Aizarna *Sarralle* omendu zituzten (89 urte biek).

erreturatutan



INAKI URANGA

Jose Luis Otamendiren narrazioko lehen liburua

Jose Luis Otamendi idazle azpeitiarrak bere zazpigarren liburua aurkeztu berri du. Orain arte poesia arloan jardun du Otamendik, baina zazpigarren hau narrazio liburua da. Hogei ipuin txikiz osatuta dago, eta *Euri kontuak* du izena. Ipuin haietako asko Azpeitian edo inguruan daude kokatuta, edo bes-

tela Azpeitiarekin zerikusia dute. Urriaren 21ean pasarte batzuk irakurri zituen Enparanen.

Ezagun egin da azkeneko asteetan azpeitiarrak batzuek –jendaurrean anonimat-

an geratu dira– Urbasa aldea –hala diote haiek behintzat– harrapatutako perretxikoa, zenbatekoa eta 30 kilokoa harrapatu zutelako. ETBko *Bertatik Bertara* saioan eta dena irten zuen perretxikoak. Hori bai, jan ere jan dute.

30 kiloko perretxikoa harrapatu, eta jan




INAKI URANGA

Artolaren erakusketa egon da Antxietan

Mila Artola margolari azpeitiarren koadro-erakusketa bat egon da urrian Antxieta Etxean. Milaren

40 bat koadro egon dira bertan, Kutxako gizarte-ekintzak antolatu-ta. Bigarren aldia da margolari azpeitiarrak erakusketa bat jarri duela herrian; aurrekoa oraintxe dela bost bat urte izan zuen. Lanbidez irakaslea da Mila, baina zaletasun handia du arteare-kiko, eta jadanik hainbat koadro margotu ditu. Azkeneko denborale luzean Donostian bizi da.



INAKI URANGA

motxien

100 urte bete ditu Maria Iriartek

Badu meritua Maria Iriarte Aizpuruk, irailaren 28an 100 urte bete zituelako. Han izan zituen egun zoriontsu hartan bere senide eta lagunak. UZTARRIAREN partetik ere zorionak eman beharko, jakina.

Ehundaka arrain hilik azaldu ziren urriaren 21ean

Arrain ugari hilik azaldu ziren urriaren 21-ean Landetatik dato-rren ibaian. Arrazoia ez zen ur falta edo zaparrada bategatik sortu oxigeno falta. Ertzainek eraman zu-ten ura aztertze-ko.



bide

SUKALDEAK

**Sukaldeko altzariak
eta
orman sartutako
armairuak**

Landeta Auzoa - AZPEITIA - Tel. eta Faxa: 943 81 17 47

URBISTONDO MARGOAK

MARGO MUNDUAN ESKEINTZA PAREGABEA

GROMISERVICE SISTEMA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea - 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



PEUGEOT

AIZPURU

AUTOAK

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

Mendiko IV. Argazki Rallya igandean

Jende aldetik arrakastatsua izan ohi da

► Mendiko IV. Argazki Rallya jokatu da igande honetan (azaroak 7) ► Lagun Onak Mendi Bazkunarekin batera antolatu du Azpeitiko Argazki Elkarteak ► Jende askok eman ohi izena

Uztarrria

Azpeitiko Argazki Elkarteak urteko bere ekintzarik jendetsuena antolatu ko igande honetan: Mendiko IV. Argazki Rallya. Udaberrian ere antolatzen du beste rally bat bat elkarteak, «baina udazkeneko

Sari banaketa abenduaren 11n

Partehartzaileek hilaren 25erako entregatu beharko dituzte diapositibarik onenak. Sari banaketa, berriz, abenduaren 11n egingo da, Enparanen, eta diapositiba emanaldia ere egingo da orduan. 30.000 pezeta eta garaikurra jasoko ditu nagusien irabazleak. Gaztetxoetakoak 5.000 pezeta-ko balea eta garaikurra.

honetan jende gehiagok ematen du izena, Lagun Onak Mendi Bazkunarekin batera antolatzen dugulako», dio Jose Ramon Larrañaga, elkarte lehendakariak. Ez da ohikoa herri bateko argazki elkarte batek urtean bi rally antolatzea, Azpeitiko baita urtean horrelako bi ekintza antolatzen dituen Euskal Herriko elkarte bakarra.

Igande honetan bertan eman ahal izango da izena, goizeko zortziak eta erdietatik hamarrak bitartean Lagun Onak Mendi Bazkunaren egoitzan (Eliz Kale, 21). Rallyaren beraren iraupena goizeko zortziak eta erdietatik eguerdiko ordu biak artekoa da, eta ibilbidea (Elosiaga-Eizmendi-Elosiaga) bi ordutan egiten dela dio antolatzaleak. Izena ematerakoan 1.500 pezeta ordaindu beharko dira; hamalau urte baino gutxiagoko gaztetxoek 500 pezeta. Zenbateko horretan 36 diapositibako karretea eta hamaiketakoa eskaintzen dira. ■



Euskal Herrian Euskaraz-en 'Euskararen tunela' Azpeitian

► Aurten 20 urte betetzen dituela-eta, Euskal Herrian Euskaraz-ek Euskararen tunela izeneko karpa bat eduki zuen aurreko astean Azpeitian; epaitegi aurrean. Bertan, erakusketaz gain, ikasleen bisitak, hitzaldi- ren bat eta abar antolatu ziren. Argazkian, erakusketa.



Azpeitia
Kimu bat

UROLAKO JARDINERIA

Ctra. Azpeitia - Urrestilla
Tel./ Faxe: 943 15 00 85
AZPEITIA



**Harategia
Odriozola**

Harategi
Especializatua



Arana kalea, 14 - Urrut.: 943 81 10 15

Gau Txoriren itxiera

Mikel Zubimendi



«Parranda on bat luzatzeko aukerie kendu diue»

«Ez dao eskubideik ein debena eiteko; Gau Txori ixtie, alegiye. Aste osuen lanien jardun ta geo, lagunekin parranda on bat luzatzeko aukerie kendu diue herriyen».

Xabier Odria



«Oso baldintza kaxkarretan zeon»

«Hobeto dao itxite, oso baldintza kaxkarretan zeolako len. Dantzalekue ondo egokitutakuen iriki berko lukebe. Bitartien, ez leoke bate gaixki tabernak beranduo ixtie».

Ekain Garate



«Inguruko jendiek pozik hartuko zun»

«Uste det inguruen bizi dan jendiek pozik hartuko zula erabakiye, kanpuen sekuleko ixkanbi lie eote zalako. Baño gaztientzat erabaki kaltegarriye da, askok koxie hartzen debelako, horrek ekartze'itun ondoriyuekin».

Jaione



«Gau Txorire jutie izeten zan aukera bakarra»

«Gaixki dago ixtie. Gazttoi zapatu gauetan ondo pasatzie gustatzen zaigu, ta tabernak itxi ta geo hara jutie izeten zan aukera bakarra».

Gaia:
GAU TXORI
ZER IRUDITZEN
ZAIZU GAU
TXORI ITXITE
EOTIE?

Igor Aramendi



Ekain

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 81 50 72

ESTUDIO D3 ENRIQUE EGUINO
ARANA GOIKOA, 1 BEHEA - 20730 AZPEITIA - URRUT.: 943 08 88

Barne Diseinua

Joseba Lazkano

Azpeitiar jesuita Venezuelan

“Batik bat gauzak lortzeak ematen du poza, ez edukitzeak”

► Zenbat urte dira Venezuelara joan zinenetik?

20 urterekin joan nintzen, duela 44 bat, urte eta erdi Loiolan nobizio bezala eginda.

► Zergatik hara?

Jesuitek hemengo ardurarekin probintzi bat genuen han, eta beste bat Indian, gaur egun gehiago baditu ere, eta horregatik izan da normala gipuzkoar eta nafarrak hara joatea. Bizkaitar eta arabakoak aldiz, Ertamerikara joan izan dira (Jon Sobrino, Ellacuria...). Bertako jendearen gizatasunak gure biziei zentzua eman die, eta oso pozik nago hara joan izanaz.

► Ez zara han dagoen azpeitiar bakarra izango.

Ez horixe! Guztira, garai batean 16 jesuita azpeitiar egon ginen, eta oraindik ere 11 gelditzen gara.

► Baina urte hauetan ez zara Venezuelako soilik egon, ezta?

Ez. Lehenengo urtea egin ondoren, Kolonbian lau urte egin nituen, Venezuelako Maracaiboko

Azpeitian pasa du uda Joseba Lazkanok, oporretan, baina apenas gelditu den; Venezuelako ezagututako lagunen bisitak, buruan duen proiekturako dirua lortu nahia eta beste hainbat kontu izan ditu. Gurekin ere izan zen, kafe bat hartuz. Venezuelako orain.

Igor Aramendi
Josu Azpillaga

ikastetxe batean hiru, Erroman beste lau, Galesen beste urtebete, Venezuelara berriro eta gero, soziologia ikastera, Deustura etorri nintzen. Garai hartan, Francoren denboran, soziologia oso gaizki ikusia zegoen, ezkertiarizat hartua baitzen. Hura bukatu eta Venezuelara itzuli nintzen.

► Azal ezazu zertan aritu zaren han.

Jesuitek bertan daukagun gizarte zentro batean egin izan dut lan, CIAS-en (Centro de Investigación y Acción Social). Horren inguruan profesional talde txiki bat biltzen ginen: antropologoak, soziologoak, ekonomistak eta abar. Era askotako lanak egiten genituen, baina SIC izena duen aldiakari batek ematen zigun batasuna batik bat: Venezuelako giro sozial, politiko, kulturala aztertu eta proposamenak egiten genituen. 31 urtez lan egin izan dut; haietatik 24 erre-dakzio buru, orain dela urtebete arte, hain justu.

► Eta orain?


Azken urtebetean Fé y Alegría izeneko mugimenduan ari naiz.

► Hezkuntza munduan.

Bai. Fé y Alegría, munduan jesuitek zuzenduta-



IÑAKI URANGA



ko hezkuntza lanik handiena izango da, seguruenik: 13 herrialdeetara iristen da eta programa ezberdinen bitartez milioi bat lagunengana; haietatik 250.000 Venezuelako

**“DUELA
44 URTE JOAN
NINTZEN
VENEZUELARA,
ETA ORAIN
hezkuntza
MUNDUAN ARI
naiz lanean”**

**“JENDEA
KONBOKATZEKO
FALTA HANDIA
DAGO; EGUN
IRAULTZAK ETA
halako hitzek
EZ DUTE JENDEA
motibatzen”**

koak dira. Mugimendua-
ren barruko ikastetxe ba-
tzutan alfabetazio eta
lehen mailako eskolak
ematen dira soilik, eta
hori zenbait lekutan ez da
gutxi. Hala ere, gehienbat
lanera bideratutako hez-
kuntza zuzendu nahi du-
gu, bai eskola-tailerren
bidez, eta baita eskoleta-
tik kanpo gelditu diren
gazteei irрати bidezko kla-
seak emanez ere.

► **Zer bereiztasun ditu Fé y Alegría beste hezkuntza proiektuekiko?**

Bereizgarri nabarmene-
na herriaren parte har-
tzea dela iruditzen zait.
Pasadizo bat aipatzen
dugu guk, sinbolikoki. Fé y Alegría, Universidad Católica jesuiten unibers-
tsitatetik sortu zen, ber-
tako jendea –aberatsen
semealabak, gehienbat–
auzorik pobreenetara joa-
ten hasi zenean. Hango
hezkuntza premiaren au-
rrean proiektu bat egin
zuten, eta klaseak ema-
teko lokal baten beharra-
ren aurrean gertatu ziren.
Hori ikusirik, bertako gi-
zon batek bera, emaztea
eta bere zortzi umeak bi-
zitzeko zazpi urtetan bere
kasa eraiki zuen etxetxo
bat eskaini zien, eta bera
lehengo txabola misera-
blean bizitzen gelditu
zen. Horrek erakusten du
zer den Fé y Alegría: he-
rria konbokatze gaita-
suna duen erakundea.

► **Konbokatze gaitasuna izatea garrantzitsua da, orduan.**

Bai, eta horren falta
handia dago gaur egun.
Nik bizi izan ditudan urte
batzutan, 70. hamarka-
dan-eta, Kubako irault-
zak, sandinismoak, so-
zialismoak eta antzeko
hitz handiek jendea moti-
batzen zuten. Egundik hitz
handi haiek ez dute inor
motibatzen, hortan ezko-
rra bihurtu da jendea. ➔

Azpeitiarren laguntza behar duen proiektua

Ez da esku hutsik etorri Joseba Lazkano. Felisa Elustondo azpeitiarraren izena daraman Granja eskola hobetu nahi duen proiektu baten aldeko laguntza jasotzen aritu da asteotan herrian.

Motibazio berezia omen du horretarako Joseba Lazkanok. «Izan ere, Fe y Alegría eta Azpeitiarren artean bada holako lotura bat. Mugimendu haren fundatzaile eta 30 urtez zuzendari orokorra Chilen jaiotako azpeitiarra izan zen: Jose Maria Velaz Irazu. Bigarren zuzendaria, haren anaia Jose Manuel. Hirugarrena, eta gaur egungoa, Jesus Maria Orbegozo Egiguren, azpeitiarra hau ere; Nazioarteko Federazioko Lehendakaria ere hura da. Gainera, konprometituta gaude beste hainbat azpeitiar ere: Sebastian Altuna Bengoetxea, Isidro Gurrutxaga, Miguel Odriozola Mujika, Jesusa Larrañaga, eta neu. Garrantzitsua izan da gainera, Pello Alberdik eskainitako laguntza».

Esku artean dakarren proiektu

zehatzak ere badu zerikusirik Josebaren jaioterriarekin. Proiektuan bultzatu nahi den granja agroekologikoa sortzearen ideia, Azpeitiko erdi kalean jaio zen Felisa Elustondo monjarena izan zen, eta egun bere izena darama. Felisak, beste hainbat erlijiosoren antzera, eskola batean egiten zuen lan, Tobar hirian. Hala ere, eta jende behartsuenez kezkatuik –nekazariez–, haien alde zerbait egin behar zela iruditzen zitzaion. Hala, nekazarien ingurunean lur batzuk erosi eta bertan nekazal eskola sortzea bururatu zitzaion. «Nik –dio Josebak– nekazal eskola honetako lurrak lehenbiziko aldiz ikusi nituenean, oso inpresio txarra jaso nuen, oso kaskarrak zirelako. Baina honek badu bere logika, nahita erosi baitziren lur haiek, nekazariak baldintza txarretara ohitu zitezen, gero askok horrelako lurretan jardun behar izaten dutelako».

Asmoa, Euskal Herriko baserrietan urteetan zehar eman den pro-

dukzio era islatzea izan zen. Hau da, norberaren bizimodua aurrera ateratzeko era askotako produktuak lantzea. Era duin batean, denetarik zerbait izatea: baratza, basoa, abelburu batzuk... Ez aberasteko, jateko baizik.

Felisa Eslustondo Granja Agroekologikoa-k orain hiru urte jarri zuen martxan bere proiektua. Dagoeneko 280 ikasle ditu oinarriko hezkuntzan, baina beste pauso bat ematea nahi da: ikasleak hezkuntza profesional ertaina burutu eta tekniko agroekologiko ertainaren titulua lortzea. Modu horretan, lan munduan sartzeaz gain, lurralde horretako produkzio ereduak sortu eta zabaltzeko ahal izango dira.

Baina hau guztia aurrera eramateko dirua behar da. 42 milioi pezetan. Dagoeneko 17 lortu dira, baina bestea falta da. Eusko Jaurlaritzaren laguntza badute, bai diruz, baita makinaria aldetik ere. Baina Joseba Lazkanoren hitzetan, «beharrezkoa da Azpeitiarren laguntza ere. Proiektu hau azpeitiar baten ametsa izanik, gure herriak horren alde zerbait egitea ezinbestekoa da. Eta ez udalaren laguntza bakarrik, orokorrean herri guztiarena baizik».

► **Txoke handia nabaritu-ko duzu hango bizimodutik honakora, ezta?**

Ni joan nintzenean, ez pentsa! Hemen ere larre motxagoan ohituak ginen. Pentsa, nik lehenengo telebista Venezuelan ikusi nuen, hemendik joan berri. Baina gaur egun diferentzia izugarria dago.

► **Zertan?**

Beste bizimodu bat da hangoa. Egunotan Vene-

**“ASKOTAN
POBRETASUNAK
BIZITZARI
BESTE ZENTZU
bat biltzen
LAGUNTZEN
digu”**

zuelan bi urtez bolondres egon den neska batekin hitz egin dut, eta berriro hara joateko zain dagoela

esan dit, hemen ez omen delako eroso aurkitzen. Eta gauza material guztiak izango ditu! Askotan pobretasun horrek berak bizitzari beste zentzu bat bilatzen laguntzen digu.

► **Askotan entzuten da pobre-zoriontsuaren kontua, baina ulertzeak lanak ematen ditu.**

Hara!: oraingo gazteen generazioa eta gurea oso desberdinak izan dira.

Gure generazioa gauzak lortzen jardun duena izan da, eta gaurkoarekin hori ez da horrenbeste gertatu, askoz aukera handiagoak izan baitituzte esku- ra. Eta gauzak edukitzeak satisfazioa eman badezake ere, batik bat gauzak lortzeak ematen du satisfazio hori. Han ere antzeko zerbait gertatzen dela esan daiteke. Zenbat zorionkide aurkitzen dituz-


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

**Egin
publizitatea
UZTARRIAN**

Telefono zenbakiak:
81 29 56 eta 85 28 59

gertutik... Joseba Lazkano

BERRITSUA ETA DIPLOMATIKOA

Imanol Lazkano

Umore onekoa eta lasaia da nire anaia Joseba, gauzak patxadaz eta presarik gabe hartzea gustatzen zaiona. Ikasle ona denez, beti jakintza arlo berriak ikasteko prest dago, hori baitu barruko jakinmina asetzeko bidea.

Baina ezaugarri haien guztien gainetik, hark duen hitz egiteko trebetasuna azpimarratu behar da. Hitz egiten abila izateaz gain, berritsua ere bada. Asko hitz egiten du. Txikitan amak albotik bidali ohi zuen hitz egi-


ten hasten zenean; Josebak lanik egin ez eta besteei ez zielako lanik egiten uzten.

Bi anaion artean urte eta erdiko aldea besterik ez dago; neu naiz biotant gazteena. Beraz, esan daiteke batera hazi ginela. Hala ere, etxeko lanak egin behar izaten zirenean, ni baino espabilatuagoa irten zen Joseba. Hark beti lanak geroago egingo zituela esaten zuen, baina azkenean ez zituen behin ere egiten. Nik, berriz, protesta egiten nuen, baina

azkenean lan guztiak egin behar izaten zituen eta izaten nintzen. Hura diplomatikoa zen. Hori bai: etxeko lanak baino nahiago izaten zuen futboleko jokatzea. Gainera, nahikoa jokalaria ona zen.

Futbolaz aparte, bertsolaritza du gustuko. Familian biltzen garenean, eta hura hemen denean, bertso dezente onak botatzen ditu. Venezuelako hainbat urtez bizitzen egon dela kontuan hartuz gero, ez dago batere gaizki hori.

Pozik etortzen da guregana, baina gure anaia hau dagoeneko hangoa, Venezuelakoa egina dago, eta hemendik joan ere horrela joaten da, gustura.



IÑAKI URANGA

te, euren pobretasunean, baina elkartasun eta laguntasun giroan? Bizitzako zoriontasuna ez dator dirutik bakarrik.

► **Baina askotan ematen du herrialde haiek dararmaten bidean helburu bakarra ere hemengoa lortzea dutela, akatsak barruan dituela.**

Arrisku hori bada, eta pena izugarria litzateke. Ni Venezuela hobetzeko intentzio guztiarekin ari naiz lanean nire bizitza osoan, baina herrialde hura Europa bezala ikus-teak sekulako kezka emango lizkidake. Hemengo gizartearen barruan ere gauza on asko

dago, baita gizatasun eta elkartasuna ere, baina hango bizitzeko kultura hura galdu eta kompetentzia-kultura honen barruan ikusterik ez nuke inondik ere nahiko.

► **Zer aldaketa nabarmendu dituzu Azpeitian azken bisitaldi honetan?**

Azken bisitalditik hona

konstrukzioan sumatu dut alde nabarmena, eta ekonomian ere mugimendu dezentea antzeman dut. Gero, oraingo bisitaldian jende dezente ikustea tokatu zait taldeetan eta lanean. Eta, oro har, politikoki giroa asko aldatu da. Zerbait berria sortzen ari den inpresioarekin noa. ■

Kontua da...

Herria neskamerik gabe gelditu zen egun hura

Duela 327 urte gertatu zen Azpeitian. Herria neskamerik gabe gelditu omen zen; horrela diote behintzat 1672ko albistek. Imajinatu horrek herritarrengan eta batik bat agintariengan sortu zuen ezinegona, etsipena eta haserrea. Oraindik ere gizartea patriarkadoaren arabera antolatua bada-



Internet

hileko oharra

Azpeitia eta Internet

Internet aipatu eta aurrena web orriak etortzen zaizkigu burura. Hala, 'Kaixo' euskarazko bilatzaile bakanetakora jo eta hitza idatzi eta sei dokumentu ageri dira. 'Altavista' erraldoian aldiz, 1.163. Kuriosoa.

Azpeitia abizen bezala nahikoa zabaldua dagoela ikus daiteke: abizen hori daukan Gerardo Azpeitia goimailako exekutiboa da EEBBetan, A. Az-

peitia izeneko medikuak hitzaldi bat du auskalo non... Abizenekin jarraituz ordea, Azpeitiarekin zuzenean lotzen diren abizenak Altuna eta Etxaniz omen dira. Herri bezala ere badu bere presentzia herriak: hotel eta enpresa gidak, Eusko-

Tren autobusak noiz igaroko diren herritik, bi museoan aipamen laburrak, Dominguez abizeneko batek paratu duen informazio turistikoa, Azpeitia.net, eta batez ere, Loiolako Inazio Deuna

(«St. Ignatius Loyola»). Euskaldunik unibertsalena igoal ez, baina azpeitiarrik interneteroena hura da behintzat.

Azpeitiko enpresa batzuk ere badute beren web gunea. Gutxi, eta pobrea oro har. Azpeitia.net gunea ere hortxe dago, edonoren eskura. Baina zer nahi duzue esatea? Inpresioa: Azpeitia ez da interneten kabitzen, internet Azpeitian kabitzen ez delako.

SANINAZIO
Interneteko
web orrietan
gehien
azaltzen
den azpei-
tiarra da,
dudarik
gabe.

SuKaldaritz

hileko errezeta

HEGALA SALTSAN



Tartera batean haragia (hegala) sartu, eta, bestetik, berdura puskak egin eta ardoarekin batera

hura ere tarteran sartu. Guztia ordu eta erdian labean eduki, 200 gradutan.

Moda

hileko oharra

Udazkeneko moda Azpeitian

Beti esan izan da Euskal Herrian oso ondo jautzen dela, baita Azpeitian ere, eta kanpoan fama hau zabaldua da. Moda, aldaketa da, eten-gabe doa aldatzen, eta aldatetaren bultzatzaile gazteria da. Garaian garaikoa behar duenez izan, euskal gazteria aitzindari izan da beste le-



go, oraindik Azpeitiko gizonezko asko, etxean emakumerik ezean, ezertarako gai ez badira, imajinatu orduan, 1672. urtean.

Ba emakume gazteek beren kasa bizitzeko erabakia hartu zuten urte hartan. Eta noski, horrek ekar zitzakeen ondorioek asaldaturik, neurriak hartzeko beharra adierazi zuten herriko agintariek. Urriaren 12ko aktan bildutako aginduaren arabera,

«bakarrik bizi diren neska gazteek eragiten duten arrisku publiko eta eskandalagarria dela-eta», izen oneko gizonezkoekin bizi-tzera *behartu* zituzten neska haiek.

Azpeitiar neska gazteen iraultza feminista ez zuten, antza, begi onez ikusi agintariek. «Neska-merik ez aurkitzeak eragiten duen deserosotasuna» bultzatuta eman zu-

1672. URTEA

Azpeitiko emakume gazteek beren kasa bizitzeko erabakia hartu zuten 1672. urtean

ten agindu hura, gainera.

Kontra agertzen zena kartzelan sartuko zutela dio, gainera, agintarien aktak. Azpeitiko borroka feministaren hastapena da, diotenez, herria neska-merik gabe gelditu zen egun hura.

Imanol Eliasen 'Azpeitia historian zehar' liburutik jaso ditugu datuak eta argazkia

Ramon Agirre / Garmendipe taberna

osagaia

Hegala kilo bat ■ Tipula bi ale ■ Porrtuak bi ale ■ Azenarioa ale bat ■ Piper berdea ale bat ■ Baratxuria bi ale ■ Ardo txuria litro erdia ■ Ogirina goilarakada bat.

BESTERIK: -

Gero haragia tarteratik kendu, eta tarterara bi baso ur bota, baita ogirina ere. Ondoren, berriz, koladorean pasatu. Berdura ere koladoretik pasatu

behar da, eta hegala beste tartera batera pasatu. Gelditzen den salda eta haragi puskak bota, eta bost minututan urarekin eduki.

kuetan motelago zabaldu diren tendentziak kaleratzen. Hau, Azpeitiko kaleetan ere nabarmen ikusten da.

Udazkenean sartuta, gazte modan 1970. hamarkadaren itzulera argia da, praka zabalak nagusi bilakatuz, panazko edo puntuzko gona luzeak, lanazko jertseak eta marrazki koloretsuz betetako kamixe-

tak. Moda-modako kolorea berriz, grisa da, tonu desberdinetan. Hala ere, hor ditu atzetik kolore biziagoak, granatak, arrosak, kakiak edo estanpatu biziak udazkena bizituz.

**Mailu Artetxe
Estitxu Aginagalde**

Babesa modak

ZaPo EuSKaRa

hileko oharra

Aitor Arruti

Arantzazu Azpillaga

Euskal filologok

Zapo era

Gehienenez, ustez, euskara batuarekiko antzekoena den hizkera da egokiena. Horrexegatik, Tolosaldekoa dugu gure artean dotorezia eredutzat. Antzekotasun horrek bakarrik ez du, ordea, hizkera bat bestea baino egokiago bihurtzen.

Azpeitiarron hizkera bera ere beste edozein bezain egokia dela esan daiteke, inolako harrokeriarik gabe.

Hasteko, inon den ingururik euskaldunenean gaudenez [Azpeitian biztanleen %87k daki euskaraz], joskera eta egitura traketsak gureganatzeko arrisku txikiagoa dugu. Hala, nekez entzungo dugu gure ka-

leetan "da superrona" edo "ere bai ni joan nintzen" bezalako hankasartze nabaririk.

Halaber, Azpeitia Gipuzkoaren bihotzean egon arren, gure hizkerak badu bizkaitar ikuturik. Bi iturritatik jasotako aberastasun horren lekuko dugu hitzetik hortzera darabilgun "ba al leike?".

Bestalde, ez da toki askotan erabiltzen gure ar-

tean adina hikako forma, bere oparotasun osoan gainera. Bada, ordea, lore arteko arantzarik gure hizkeran ere: "Aizak, Miren, ba al dakik Kepak atxuekin moztu dule?". Horrelakoak, hurrengoan aztergai.

AZPEITIA
**Gure hizke-
ra beste
edozein
bezain ego-
kia dela
esan daite-
ke harroke-
riarik gabe.**

Euskal kultura orokorrean ondo ezagutzen dute **hiru solaskideek**, baita Azpeitiko kultur egoera ere. Herri aldizkariaren sorrera, Azpeitiko **kultur** azpiegiturak, Kultur Etxea, udalaren papera... **izan dituzte hizpide** UZTARRIAK antolatu mahainguruan.

Kulturaz eztabaidan



Sosak

Gaiari sartu orduko, hiru gonbidatuek —Maria Jesus Aranburuk, Joxe Luis Aizpuruk eta Laxaro Azkunek— kulturaz zer ulertzen duten diote. Eta hasieratik ikuspegi desberdina somatzen da, euskal kulturari dagokionean behintzat. Azpeitiko kultur egoeraren gainean ere ikuspuntu desberdinak izango dituztela nabari da. Hirurek kulturarekiko harremana modu desberdinean bizi dute, eta hori hitz egite-rakoan ere nabari da.

«Azpeitian badaude zenbait talde handitzen ari direnak. Eta talde haiek sortzen dutena kanpora ateratzeko, kontrastatzeko, azpiegiturak behar dituzte; antzokia, musika aretoa...». Maria Jesus Aranbururen hitz horiekin hiru solaskideak herri mailara jaitsi dira. Euskal kulturaren funtzioa, kontsumo-kultura eta kultura baztertua bezalako kontzeptuak alde batera utzi eta herriko egoera hartu dute hizpide. Joxe Luis Aizpururen hitzetan, Az-

Hiru solaskideek beharrezko ikusten dute udalak herri aldizkaria laguntzea. Maria Jesus Aranbururen hitzok ondo definitzen dute hiruren jarrera: «Baldin eta herrian proiektu bat badago —aldizkari hau, kasu—, udalak tresnak jarri behar ditu, proportzio baten barruan; herriaren adierazpen bati ezin dio bizkarrik eman».

peitiko Udalak oraindik egiteko ugari du bide horretan: «Herrian taldeek lana egiten dute, baina gero bideak falta zaizkie kanpoan erakusteko. Sortzen dena kanalizatzen lagundu behar du udalak; hori da bere egitekoa».

Laxaro Azkuneraren ustez, horren harira, «Azpeitiko Udalak ez du dagokion ardurarik hartu gai horretan; sona duten ekintzetan busti ohi da, baina besteetan ez». Udaleko agintarien lana

«erraza ez» dela izango dio Azkunek, baina taldeek pairatzen duten egoera «kezkagarria» iruditzen zaio.

'Etxafuego efektua'

Joxe Luis Aizpuruk «Azpeitian kultura arloan ematen den *etxafuego efektua*» azpimarratu du: «Urteko une batzuetan gauza handi eta ikusgarri gutxi batzuk egiten dira, baina urtean zehar lehortea dugu». Maria Jesusek *etxafuegoaren* adibidearekin jarraituz hartu du hitza. Haren arabera, «herrian noizbehinka *etxafuegoak* egitea beharrezkoa da». Dena dela, taldeei laguntzak ematea ere beharrezko ikusten du Maria Jesusek.

Laxaro Azkunek, herriko taldeek behar duten laguntza azpimarratu ondoren, «*etxafuego* edo *kontzentrazio efektuak* ere» funtzionatzen duela esan du: «Jendea biltzea bilatzen da, eta jendeak erantzutea nahi bada, propaganda egin behar da; Antzerki Topaketetan, esate baterako».

Kultur Etxea eta herri aldizkaria

«Ez dakit etxe bakar bat izateak garrantzirik duen. Kontua ez da Kultur Etxe bat izatea, orokorrean tresnak izatea baizik, taldeei biltzeko edo mani-



IÑAKI URANGA

mahainguruko partaideak

MARIA JESUS ARANBURU

- Azpeitiarra.
- Gipuzkoako Diputazioko Kultura zuzendaria da egun. Lehen, Kultura Diputatua.
- Ikastolako irakaslea izana da.



JOXE LUIS AIZPURU

- Azpeitiarra.
- Euskaldunon Egunkaria-ko Iritzi Saileko arduraduna.
- Azkoitiko Mataderoko kultur antolaketan parte hartutakoa.



LAXARO AZKUNE

- Azpeitiarra.
- Loiola Herri Irratiko kazetaria.
- Bertso gaijartzailea.
- Ikastolan irakaslea izana da.



M. J. Aranburu:

«Ez dut uste Kultur Etxe bat behar denik»

festatzeko guneak ematea». Hitzon bidez, Kultur Etxearen kontra agertu da Maria Jesus Aranburu. Ez, ordea, beste bi solaskideak. Laxaro Azkunek bi abantaila nugu-

J. L. Aizpuru:

«Herrian *etxafuego efektua* ematen da»

si ikusten dizkio Kultur Etxe bati: «Batetik, taldeek leku fisikoa izango lukete; bestetik, taldeen komunikazioa lagunduko luke Kultur Etxe baten».

Laxaro Azkune:

«Komunikazioa lagunduko luke Kultur Etxeak»

Joxe Luis Aizpuru ere bide horretatik mintzatu da: «Azpeitian taldeak sakabanatuta daude, ez dute elkarren berri. Bada garaia erreferentzia toki bat izateko». Baina Ma- ➔

Urbizarte Auzunea, 1 - 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) - Tfno.: (943) 81 46 65

MITXEL



c.b.

Barruko ate eta tolesgarriak
Ate trinko eta blindatua
Oimaulki parketa eta frisoak
Armairu horma sartuak
Leihoak - Harotzlanak

Arretxe kalea, 19 • Landeta Industrialdea
Tel./Faxe: 943 81 01 65
Apdo. 12 - 20730 **AZPEITIA**

**Joxe Luis
Aizpuru:**

**«Azpeitian taldeak
sakabanatuta
daude. Bada garaia
erreferentzia toki
bat izateko»**

ria Jesus Aranburuk dio ezetz, komunikazio horretan toki fisikoak hala-ko eraginik ez duela.

Eta herri aldizkaria ezin aipatzeke utzi. Hiru solaskideek ikusten dute herri aldizkari baten beharra. Horretan ados daude. Laxarok aldizkariaren efektu positiboak bata bestearen atzetik azpimarratu ditu: «Gertuko albisteak kontatzean, jendeari euskaraz irakurtzeko ohitura sartuko zaio. Bestetik, kultur ekin-



INAKI URANGA

Laxaro Azkune:

**«Herri aldizkarian gertuko albisteak
kontatzean, jendeari euskaraz
irakurtzeko ohitura sartuko zaio»**

**Maria Jesus
Aranburu:**

**«Herri aldizkaria
ondo egiten bada,
irekia bada, inork
ezingo du ezbaian
jarri»**

tza eta dinamikak islatzen baditu, izugarri aberasgarria da hori. Eta herri- sortua denez, plurala behar du izan, guztiek lekua izan behar dute».

Maria Jesusek ere «beharrezko» jotzen du herri aldizkari bat, «baina edozein komunikabidek bete behar dituen baldintzak bete behar ditu: irekia izan behar du, era guztietako informazioa zabaldu behar du... Aldizkaria ondo egiten bada, denok iritzia emateko aukera badugu, inork ezin- go du ezbaian jarri».

Joxe Luisen arabera, berriz, aipatutako abantailaz gain, «aldizkaria eztabaidak sortzeko bide bat izan daiteke».

Euskal Herriko kultur politikaz, politikaz orokorrean... Hirurek beste kontu asko ere izan zituzten UZTARRIAK antolatuta mahainguruan. Baina kultura izan zen gairik nagusia, eta garbi ikusi zen, elkarri entzunda, gauza askotan azkenean uste baino alde txikiagoak dau- dela guztion artean. ■

Xabier Alday - Iban Arregi

Eskulanak
Est-Bel

- Zurezko altzarien polikromatua.
- Metala, tela, eskaiola eta poliuretanoan margotzea.
- ... eta beste hainbat eskulan.

Foruen Ibilbidea, 3
Tel.: 943-816107

Matrikula zabalik urte osoan

HAURT XO A

- ☆ Arropak
- ☆☆ Oinetakoak
- ☆ Kotxeak eta sehaskak
- ☾ Haurrentzako tresna guztiak
- ☆☆ Zenbait erregali
- ☆ eta abar luze bat.


Perez Arregi, 9 Urrut.: 943 81 69 79 AZPEITIA

E.G.A.N.A

BEREZIAK - INAZIOAK
goiko-kalea, 10 azpeitia
tel. 943 81 18 85

Mendizaleen buelta

Gipuzkoako Itzuliaren azken etapa egingo da hilaren 21ean



Lagun Onak Mendi Bazkunak aurten antolatutako irteera bateko irudia.

LAGUN ONAK M.B.

► Hilaren 21ean Lizarrustin hasi eta Otzaurten bukatuko da Gipuzkoako Itzuliko azken etapa ► Orain dela 11 urteko esperientziak animatu ditu ► Itzuliari datorren urtean ekingo diote berrir.

Iban Arregi

Azaroaren 21ean, Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta, Gipuzkoako Itzuliko zazpigarren eta aurten-goari dagokionez azkenengo etapa egingo da. Bukaerako etapa hori Lizarrustin hasi eta Otzaurten bukatuko da. Urteko azkena da, baina itzuli osoa egiteko hurrengo urtea ere beharko dute.

Angel Mari Etxeberria, Lagun Onak Mendi Bazkunako lehen-dakariarekin, hitz egin dugu itzuli horren inguruan. «Lagun Onak-ek duela 11 urte egin zuen Gipuzkoako Itzulia; garai hartako Gipuzkoako Aurrezki Kutxa



Itzuliko zazpigarren eta azken etapa izango da 21ean.

LAGUN ONAK M.B.

Mendiaz goatzeko bide berria eskaini du Lagun Onak M.B.k Gipuzkoako Itzuliaren bitartez

Munizipalak liburu bat atera zuen, ibilbideak-eta erakusten zituen. Eta liburu hark zehazten zituen etapei jarraituz egin zen itzuli hura». Ekimen haren

arrakastak bultzatuta, elkarrekin «jendea animatzeko» zerbait berezia egitea erabaki zuen, eta Gipuzkoako Itzulia prestatu.

Mendiaz goatzeko bide berria eskura jarri dute mendizaleek. Eta partaidetza aldetik gustora dauden arren, oraindik zertan hobeturik badagoela dio Etxeberriak, herritarrei mezu argia luzatuz. ■

izan beharreko telefonoak

Erakunde edo toki publikoak

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	15 13 13
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	17 17 05
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Nekazal Ganbara	81 46 56
Zerga Bulegoa	81 13 68
Enplegu Batzordea	15 03 00
INEM	15 04 02
Eusko Jaurilaritza	15 16 57
Urkome	81 65 00
Lapatx Zabortegia	81 55 05
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

Osasuna

Anbulategia	81 51 00
(larrialdiak)	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA	81 38 49
(Donostia)	46 46 22

Komunikabideak

Uztartaria (oraingoz)	15 10 89
DV	15 09 94
Herri Irratia	81 44 58
Kaito TB	81 53 35

farmaziak gazez

Azaroaren 1etik 7ra

Azpiazu (Azkoitia). Kale Nagusia, 66. 85 29 89.

Azaroaren 8tik 14ra

Beristain. Urbitarte, 3. 81 19 49.

Azaroaren 15etik 21era

Gisasola (Azkoitia). Jandonianiz, 5. 85 12 35.

Azaroaren 22tik 28ra

Garcia. Enparan, 29. 81 12 74.

Azaroaren 29tik abenduaren 5era

Ruiz (Azkoitia). Kale Nagusia, 13. 85 19 66.

Alderdi politikoak

EAJ - PNV	81 55 70
HB - EH	15 12 15
EA	81 00 11

Sindikatuak

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

Ikastetxeak

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesuitinak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola DBH	15 02 28

Garraioak

Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	81 11 59
Pesa	21 26 99
Piper U. Elkarte	85 25 87
Taxiak	81 13 07

Kultura - Euskara

Euskara Patronatoa	81 19 47
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztartaria (oraingoz)	15 10 89
Antxieta Etxea	81 35 40

gune publikoen ordutegia

Udaletxea

Astegunak: 9:00 - 13:30.
Larunbatak: 9:00 - 13:00.

Ixpixioa

Egun osoz irekita.

Igerilekua

Astegunak: 7:00 - 12:00,
15:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 -
13:00, 16:00 - 20:00.

Kiroldegia

Astegunak: 9:00 - 13:00,
15:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 -
13:00, 16:00 - 20:00.

Udal Liburutegia

Astegunak: 10:00 -
13:00, 16:00 - 20:00.
Aste Santuan, udan eta
Gabonetan: Astegunetan
9:00 - 13:00.

autobusak

JOATEKO

Azpeitia-Zestoa-Donostia

Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1),
8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1),
14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2),
19:45 (2).
Larunbatak eta abuztuko
astegunak: 7:50, 10:00, 13:40,
15:10, 16:10, 19:15.
Igandeak eta jaiegunak: 15:10,
19:15.
Enpresa: La Guipuzcoana.
Oharrak: 1: Eskola egunetan
'Este-tik' pasatzen da; 2: Sarrera
Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik.

Azpeitia-Eibar-Bilbo

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30.
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.
Igandeak eta jaiegunak: 9:30,
19:30.
Enpresa: Pesa.

Azpeitia-Bilbo-Leioa

Astegunak: 6:35, 13:30.
Enpresa: Piper Unibertsitarien
Elkargoa.

Azpeitia-Azkoitia

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50,
8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25,
11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25,
14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25,
18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25,
22:25.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:00,
7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20,
12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05,
17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40,
21:35, 21:40.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Zestoa-Zumaia

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15,
9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10,
13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10,
18:10, 19:10, 20:10, 21:10.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:25,
9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25,
13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25,
20:25, 21:25, 22:05.
Enpresa: EuskoTren.
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik
pasatzen da; 2: Larunbatetan
Aizarnazabaldik pasatzen da.

Azpeitia-Zestoa-Zarautz

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40,
13:25, 15:10, 18:10.
Asteburuak eta jaiegunak:
15:40, 18:10, 20:10.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Zumarraga (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25,
12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25,
19:25.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:40,
8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40,
18:40, 19:40.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Errezil-Tolosa

Astegunak: 6:55, 13:55.
Asteburuak eta jaiegunak: 6:55,
11:10.
Enpresa: EuskoTren.

ITZULTZEKO

Donostia-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05,
12:05, 13:05 (1), 14:05 (1),
15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1),
20:00 (3), 20:30.
Larunbatak eta abuztuko
astegunak: 8:50, 12:15, 14:30,
16:00, 18:00, 20:00.
Igandeak eta jaiegunak: 18:00,
20:00.
Enpresa: La Guipuzcoana.
Oharrak: 1: Eskola egunetan
'Este-tik' pasatzen da; 3: Eskola
egunetan soilik.

Bilbo-Eibar-Azpeitia

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00.
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.
Igandeak eta jaiegunak: 9:30,
12:30, 21:00.
Enpresa: Pesa.

Leioa-Bilbo-Azpeitia

Astegunak: 14:00, 20:00.
Enpresa: Piper Unibertsitarien
Elkargoa.

Azkoitia-Azpeitia

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00,
8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30,
11:00, 12:00, 13:00, 13:15,
13:45, 14:00, 15:00, 16:00,
17:00, 18:00, 19:00, 20:00,
21:00.
Asteburuak eta jaiegunak: 6:45,
7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35,
12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15,
17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15,
21:15, 21:55.
Enpresa: EuskoTren.

Zumaia-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00,
8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00,
13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00,
17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00.
Asteburuak eta jaiegunak: 6:35,
7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15,
12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55,
18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15.
Enpresa: EuskoTren.
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik
pasatzen da; 2: Larunbatetan
Aizarnazabaldik pasatzen da.

Zarautz-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15,
14:00, 16:00, 18:45.
Asteburuak eta jaiegunak:
16:30, 19:00, 21:00.
Enpresa: EuskoTren.

Zumarraga (hospitela)-Azpeitia

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30,
13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30,
20:30.
Asteburuak eta jaiegunak: 8:45,
9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45,
19:45, 20:45.
Enpresa: EuskoTren.

Tolosa-Errezil-Azpeitia

Astegunak: 9:30, 18:30.
Asteburuak eta jaiegunak: 9:30,
12:00.
Enpresa: EuskoTren.

zer dago gaizki, zer faltan, zer soberan?

Adi-adi egin so eskuineko argazkiari, eta bertan zer dagoen gaizki, zer faltan edota zer soberan asmatu behar duzu. Zeure ustez asmatzen baldin baduzu, adierazi akatsa boligrafoz, moztu orrialde hau eta bidali gutuntxo batean helbide honetara: Uztarria Kultur Koordinadora, posta kutxa 227, Azpeitia.

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:

Irabazleak **Garmendipe jatetxean** bi lagunentzako afaria izango du, eta Uztarriaren elastiko bat ere jasoko du.



aurreko argazkia

... eta soluzioa

hurrengo aletik aurrera

irabazlea:

?

Afaria eta elastikoa ◆
Argazki honetan azalduko da lehiaketako garailea, jate-txearen aurrean eta Uztarriaren elastikoarekin. Zeu izan zaitezke aurrena, eta animatu, beraz, parte hartzera.

Bideo digitala

URBITARTE 4-BEHEA
TEL. 151287
20730 AZPEITIA

urke
ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAIK

Ezkontza, bataio, jaunartze
eta bestelako ospakizunak.

Argitarapen honen edizioako laguntzale:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*



ELIZ KALEA, 23
URRUT. 943 15 09 49
AZPEITIA



UROLA ERDIKO MERKATARIEN ELKARTEA

**500.000 pzta - ko
sari
zozketarentzako
txartelak salgai.**

Zozketa eguna: Urtarrilak 11

aZaRoA

5 (ostirala)

- **GAZTERIA.**
Sexualitate ikastaroa, Gazteok Zer?!-ek antolatuta. 18:30etan Aitonena I-en.
- **ZINEMA.**
Zine Klubaren emanaldia. 21:30etan Soreasun.
- **MUSIKA.**
Ruper Ordorikaren kontzertua, Uztarria Kultur Koordinadorak antolatuta. 22:30etan Zelaixon.

6 (larunbata)

- **GAZTERIA.**
Sexualitate ikastaroa, Gazteok Zer?!-ek antolatuta. 15:30etan Aitonena I-en.

7 (igandea)

- **MENDIA - ARGASKIA.**
Mendiko IV. Argazki Rallya, Lagun Onak Mendi Bazkunak eta Argazki Elkarteak antolatuta (informazio gehiago 14. orrialdean).
- **MUSIKA.**
Goiz eresia Izarraitz Txistulari Taldearekin. 9:00etan.

8 (astelehena)

- **ARTEA.**
Urolako artisten XVIII. erakusketarako obrak aurkezteko epearen hasiera, Kutxak antolatuta. 81 35 40.

11 (osteguna)

- **MENDIA.**
Mendiko diapositiben emanaldia, Orkatx Kultur

musika kritika

- Taldea: 12 tribu (Azpeitia).
- Who's your leader? konpakta.
- 1.500 pezeta.
- Tabernetan salgai.



FRESKOA

Reggae doinuaz osaturiko diskoa dugu 12 tribuko lehena lan hau. Doinu maketeroa duela esan behar dut, baina doinu horrek berak ematen dio freskotasuna eta reggae talde zaharren kutsua.

Lan oso lasaia eta homogeneoa da. Kanta batetik bestera ez dago hausturarik, kantez hari bera segitzen dute, *Stamping ground* kanta izan ezik, abesti hura ska doinuaren sartzen baita. Hala eta guztiz ere, bi altxor nabarmendu behar ditut: *Zazpiak bat* (diskoko euskarazko abesti bakarra), eta *Those days* (reggae abesti bat baino gehiago, balada bat da).

Koldo Eizmendi

Taldeak antolatuta. 21:00etan Orkatzen.

12 (ostirala)

- **GAZTERIA.**
Sexualitate ikastaroa, Gazteok Zer?!-ek antolatuta. 18:30etan Aitonena I-en.

13 (larunbata)

- **GAZTERIA.**
Sexualitate ikastaroa, Gazteok Zer?!-ek antolatuta. 15:30etan Aitonena I-en.
- **KIROLA.**
Futbolin Txapelketa, Orkatx K.T.ak antolatuta. 17:30etan Orkatzen.
- **SASKIBALOIA.**
I. Autonomika: Jostaldi Kirolak - Calahorra. 18:30etan Kiroldegian.
- **ABESBATZA.**
'Udazkenean abesbatzak', Julian Barrenetxeak antolatuta: Aritzeta. 19:00etan, Frantziskanetan.

14 (igandea)

- **MENDIA.**
Illaun-era irteera, Lagun Onak M.B.k antolatuta. 9:00etan plazan.
- **MUSIKA.**
Goiz eresia Izarraitz Txistulari Taldearekin. 9:00etan.
- **FUTBOLA.**
III. Maila: Lagun Onak - Baskonia. 16:30etan Garmendipen.

15 (astelehena)

- **DANTZA.**
Dantza sueltoaren ikastaroaren hasiera, Itsasik antolatuta. Abenduak 17 arte.

19 (ostirala)

- **ZINEMA.**
Zine Klubaren emanaldia. 21:30etan Soreasun.

LORADENDAK

Lore Sortak

Koroaiak


Lore Apaingarriak

Etxeetarako

Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87

Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA



Euskadiko

XVII.

Euskal
Antzerki
Topaketak

1999ko udazkena
Urriaren 30etik
Abenduaren 21era

eta abenduaren 21-
ean bukatuko di-
ra.

**Azaroari dagokio-
nez**, hiru antzerki
emanaldi izango
dira, denak 21:30-
etan Zelaitxo an-
tzokian: 6an Gora-
kada taldearen es-
kutik *Ilargia le-
kuko*, 20an Mas-
karada taldearen
eskutik *Izarretako
Bitakora*, eta 27an

berriz ere Maskarada talde-
arekin *Ikaro*.

Horretaz gain, badira irratia
lehiaketako saioak (5, 12, 19
eta 26an, 16:00etan Enpa-
ran Dorretxean), hilaren 13-
an Gari, Montxo eta Jose

Lontxo pailazoak
ariko dira Zelai-
txon, 18:00etan,
eta aurtengo ome-
naldia hilaren 11n

egingo da, eta omendua
Nemesio Etxaniz izango da,
19:00etan, udaletxean. Az-
koitiarra zen Nemesio, eus-
kaltzalea; antzerkian lan
handia egindakoa da.

■ ANTZERKIA

Zer: 'Euskadiko XVII. Euskal
Antzerki Topaketak'

Noiz: Urriak 30 - Abenduak 21

Tokia: Azpeitia

ANTZERKIAREN OHIKO HITZORDUA

Iritsi da, ohi bezala, antzer-
kiaren garaia Azpeitira, ja-
danik hasi baitira 'Euska-
diko XVII. Euskal Antzerki
Topaketak', Azpeitiko Uda-
leko Kultura Batzordeak an-

tolatuta. «Euskaraz eginda-
ko antzerkia sustatzea da
helburua», eta bertan talde
profesional eta amateurrek
hartuko dute parte. Urriaren
30ean hasi ziren topaketak,

20 (larunbata)

■ ABESBATZA.

'Udazkenean abesbatzak':
Julian Barrenetxea. 19:00-
etan, Frantziskanetan.

21 (igandea)

■ MENDIA.

Gipuzkoari Itzulia, 7. etapa:
Lizarrusti-Otzaurte, Lagun
Onak M.B.k antolatuta.
8:00etan plazan.

■ MUSIKA.

Goiz eresia Izarraitz
Txistulari Taldearekin.
9:00etan.

■ FUTBOLA.

III. Maila: Lagun Onak -
Aurrera Vitoria. 16:30etan
Garmendipen.

27 (larunbata)

■ SASKIBALOIA.

I. Autonomika: Jostaldi
Kirolak - Larraona.
18:30etan Kiroldegian.

■ ABESBATZA.

'Udazkenean abesbatzak',
Julian Barrenetxea antolatu-
ta: Nemesio Otaño.
19:00etan, Frantziskanetan.

UZTARRIAREN oharra taldeei: bidali
zeuon ekitaldion berri honako helbide
batera: 227 posta kutxa (Azpeitia),
edo Urbitarte 2, 1-A (Azpeitia).

aZaRoA

Abel Segurola

Abel artzaye. Holaxe ezautu izen deu

beti. 30 urte dauzke oin, ta oin dala 13tik dauke artalde propiye. Geo ta gutxiyo jaixtea herrire; Elo-siya aldien bizi da.



"GOGORRA DEK ARTZAI IZETE HAU, BAÑO GU GEURE ERA BIZI GAITUK, TA GUSTOA"

► **Hi, Abel, beti 'Abel artzaye' izen haiz...**

Ba motel! Hamaxe urteako hasi nitxian ni ardiyekin bueltaka.

► **Zenen bitartez?**

Atte zanan bitartez ez. Harek arotz-taller baten sartu nahi natxikan, baño nik nahi ez. Osaba Jexuxek sartu natxian mundu hontan.

► **Ta eskolie utzi ber, ez?**

Eske, ezin nian danea alleau. Ikastola jun bai, juten nitxian, baina juteatik-eo, ze geo deberiek etxien batez. Etxien, osabakin, ardiyek.

► **Zeoze eakutsiko zian, ordie, eskoliek?**

Ordureko alleau ber dala ta hola-

kuek. Artzai bezela're kontu haundiye euki berra zio ordukin.

► **Ta, ze mouz artzai bezela, Abel?**

Ondo. Hau dek nere biziye. Hemendik bizi nauk. Nik oin ezingo nieke herrire bueltau bizitzea. Ta hori ni kale-kumie izen nintzela txikiten, e!

► **Baño kalea jatxiko haiz.**

Bai, baño geo ta gutxiyo.

► **Ta?**

Ba, geo ta diferentio ikustetela herriye. Hango obrak ta kristue! Igoal eote haiz denboale batien jatxi gabe, ta galdute hao motel, direzion prohibida berriyekin-da!

► **Hik ze esango ioke kaleko gazte bati?**

"Geo ta gutxiyo jaixte nauk herrire, ta geo ta diferentio ikusteiat. Hango obrak ta kristue!"

Esango nukena zea izengo huke: tristie dala haietako askona, askok ez debelako ezautzen baserriko bizimodu, gurasuek-da kalekuek ditxiabe-da. Ta gero esango nitxokek ondo bizi naizela artzai bezela.

► **Bizimodu gogorra dek, ordie, ez?**

Bai, baño gu geure era bizi gaituk, eta kaletar asko ez. Negue dek gogorrena, baño gustoa natxiok. Udara partien Aralar aldea jute gaituk.

► **Harea zeba?**

Hemen gosie zio.

► **Nola gosie?**

Ardiyentzat jan gutxi zio. Izarraitz aldien [600 ardi dauzke]. Aralarrea jun ber.

► **Terrenuek al dauzkek ba?**

Han enpadrona ber izen nian neure ardiyek han ibiltzeko. Zaldibikue nauk ni papeleoz [diyo algara batien].

► **Ta nola ateatzek bizimodu?**

Arkumiek, esnie eta gaztayek saltzen. Oin gaztatei haundi bat eiten ai nauk.

► **Ta, errexa eite al zaik gaztayek eite hori?**

Eitie errexa dek; ona eitie zalle. Halare, Leazpin laugarren atea giñian, hi!

► **Hor baituk artzai batzuk egualdiye-da asmatze debenak, beste batzuk bertsolayek dituk... Hi zer?**

Alde hortatik zero nauk. ■

UKabi

INFORMATIKA AHOLKULARITZA

HARDWARE



Ordenagailu salmenta

Sare Instalazioak

Serbitzu Teknikoa



SOFTWARE

Programak neurrira

Gestio eta kontabilitateko programak

PRESTAKUNTZA



Enpresei, langabetuei, partikularrei eta umeei zuzenduriko prestakuntza



INTERNETA

Intenera sarrera JET-en bidez. Enpresa edo partikular mailako soluzioak

WEB horrien diseinua

La Salve, 39 - Behea
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Urrut. 943 15 01 01 Faxe: 943 15 00 01

KALITATEZKO PAUSOA

PROZESUAREN KONTROLA ETA SEGURTASUNA

DISEINUA


ARGAZKIAK

FOTOLITORIK GABE

G R A F I C A S



Z U B I



IMPRESIO BIKAINA

Landeta-Arretxe, 11-Tel.: 943 15 75 02 • Fax: 943 81 37 98 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) • E-mail: zubi@abc.ibernet.com

Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa



Babesa
gazte moda

Tel. 943 15 13 69 • Urbitarte, 9 • AZPEITIA
Xanjuandei auzuen gatxauden!

Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa